



AIARAKO UDALAK 2020KO URTARRILAREN 23AN EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

PRESIDENTEA

Gentza Alamillo Udaeta jauna

ZINEGOTZIAK

Montse Angulo Solloa andrea
Susana Martín Benavides andrea
José Antonio Bartolomé Pesquera jauna
Itxaso Gorbeña Allende andrea
Unai Campo Arenaza jauna
Karmele Población Martínez andrea
José Antonio Gorbea Alonso jauna
Marian Mendiguren Mendíbil andrea
Iratxe Parro Uzquiano andrea

Arespalditzan, udaletxeko bilkura aretoan, bi mila eta hogeiko urtarrilaren hogeita hiruan, hemeretziak eta bost minutu zirenean, Udala ohiko osoko bilkuran bildu zen, Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunaren zuzendaritzapean eta aipatutako zinegotzien presentziarekin, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46 b) artikuluari jarraikiz. M^a del Carmen Rojo Pitillas izan zen saioko idazkaria.

EZ DA ETORRI:

Iñigo Pinedo Vadillo jauna

IDAZKARIA:

M^a Del Carmen Rojo Pitillas andrea

Alkate-udalburuak osoko bilkurara ongietorria eman die denei, eta, besterik aipatu gabe, eguneko **GAI-ZERRENDAKO** gaiak bozkatu eta eztabaidatu dira.

1.- Onestea, bidezkoa bada, 2019ko abenduaren 19ko ohiko osoko bilkurako akta.-

Jarraian, Udalbatzari aurreko aktaren berri eman zaio, 2019ko abenduaren 19ko Udalbatzaren ohiko osoko bilkurari dagokiona.

Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak argitu du eskaeren eta galderen atalean honako hau esan zuenean “*AOT plazari lotuta dagoen lizitazio elektronikoen gaiari dagokionez, adierazi du astakeria dela kudeaketa horiek Administrazio Batzarren menpe soilik egotea, ez dutelako baliabiderik; beraz, Ayala aholkularitza-enpresari laguntza eskatzeko aukera planteatu du, parte har dezan*”, aholkularitza-enpresaren izena aipatzen bazuen ere, berak kontu horrekin laguntzeko gai den edozein aholkularitza-enpresa esan nahi zuela.

Ez da beste esku-hartzerik egon eta akta aho batez onartu da.

2.- 2020ko urtarrilaren 14ko 2020/18 Dekretuaren berrespena, 2019ko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak finantzatzeko Aiarako Udalaren eta Arabako Foru Aldundiaren arteko lankidetzaren hitzarmena onesteari buruzkoa.-

Jarraian, 2020ko urtarrilaren 14ko 2020/18 zenbakiko Dekretuaren berri eman zaio Udalbatzari; horren bidez onartu egin zen 2019ko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak finantzatzeko Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiken Sailaren eta Aiarako Udalaren arteko 2019ko abenduaren 10eko lankidetzaren hitzarmena; Dekretua Udalbatzak berrestea; alkate-udalburuari ahalmena ematea hitzarmena formalizatzeko



beharrezkoak diren dokumentuak sinatzeko eta alkate-udalburuak sinatutako kopia bat igortzea Arabako Foru Aldundiari, jakinaren gainean egon dadin eta dagozkion ondoretarako.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da eta aho batez erabaki du, bozketa arruntean, 2020ko urtarrilaren 14ko 2020/18 zenbakiko Dekretua berrestea.

3.- Euskal Fondoari 2019rako dirulaguntzak emateko erabakia aldatzea.- Jarraian, 2019an Euskal Fondoari dirulaguntzak eman zaizkion proiektuaren ordainketa justifikatzeko epea luzatzeari buruzko akordio-proposamenaren berri eman zaio Udalbatzari. Honela dio:

“AKORDIO PROPOSAMENA

IKUSI DA Euskal Fondoak 2020ko urtarrilaren 13an (sarrera-erregistroko zenbakia: 103) mezu elektronikoa bidali duela. Horretan zioen 2020ko urtarrilaren 9an Aiarako Udalaren jakinarazpena jaso zutela (2019ko abenduaren 13ko 1263. irteera-zk.), Udalbatzak 2019ko azaroaren 21ean hartutako erabakiari buruzkoa. Erabaki horren arabera, 5.063,55€-ko dirulaguntza eman zitzaion "2/2 fasea. Somoto hirian espazio publikoetako irisgarritasuna hobetzea, desgaitasunak dituzten pertsonentzat" proiekturako. Dirulaguntza ematerako orduan, EUSKAL FONDOAK aurreko proiektua bukatuta dagoela jakinarazten badu, Aiarako Udalak proposatu zuen "Saharako errefuxiatuen kanpalekuetako garraio-azpiegiturari laguntzea-2019rako prestakuntza, suntsikorrak eta ordezkioak" proiektuan lankidetzan aritzea. Hitzarmen horretan, zehaztu zen proiektua gauzatuko dela justifikatzen duen dokumentazioa aurkezteko **epea 2020ko urtarrilaren 31ra arte** izango dela.

IKUSI DA mezu elektronikoa adierazten dutela ezinezkoa zaiela proiektua ezarritako epe barruan kudeatzea eta justifikatzea. Gainera, alegatu dute proiektu bat aurrera eramateko finantziarioa behar dutela, eta horrek proiektuaren hasiera- eta amaiera-datak atzeratzen dituela.

IKUSI DA Euskal Fondoak- Euskal Toki Erakundearen Lankidetzarako Elkarteak, Euskadiko Fronte Polisarioaren ordezkariak (Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa) eta Arabako SEADen Lagunen Elkarteak sinatutako hitzarmena, "Saharako errefuxiatuen kanpalekuetako garraio-azpiegiturari laguntzea- 2019ko prestakuntza, suntsikorrak eta ordezkioak" proiektua batera finantzatzeko; aurreikusten da proiektua 2019ko abenduaren 1ean hasi eta 2020ko azaroaren 30ean amaitzea.

IKUSI DA Dirulaguntzak ematea arautzen duen udal ordenantzak (2010eko ekainaren 9an ALHAOn argitaratua) honako hau ezartzen duela 21. artikuluan, dirulaguntza publikoei buruzkoan: "...Gehienez ere hiru hilabeteko epean aurkeztu beharko da, jarduera egiteko epea amaitzen den egunetik hasita, edo oinarrietan ezarritako epe laburragoan".

IKUSI DA Soziosanitarioa, Berdintasuna, Immigrazioa eta Adineko Pertsonak Informazio Batzordean, 2020ko urtarrilaren 14an, premiaz onartu zela Euskal Fondoari emandako dirulaguntza justifikatzeko epea 2020ko martxoaren 31ra arte luzatzea. Dagozkion jatorrizko fakturarekin edo kopia konpultsatuekin egiaztatu beharko da (2019koak izan beharko dira, eta beranduenez ere 2019ko abenduaren 31 baino lehenagokoak), eta emandako dirulaguntzaren zenbateko osoa eta horren ordainketaren egiaztatzea ere aurkeztu beharko dira (2020ko martxoaren 31 baino lehenagokoa); baita 2019ko azaroaren 21eko Udalbatzaren erabakian adierazitako justifikazio-agiriak ere. Hala ere, horrek ez du eragozten diruz lagundutako proiektua 2020 ekitaldian osorik gauzatu izana justifikatzeko beharra.



Arespalditzan.- ALKATEA.- Sin.: Gentza Alamillo Udaeta”.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da eta bozketa arruntean aho batez erabaki du Euskal Fondoari emandako dirulaguntza justifikatzeko epea 2020ko martxoaren 31ra arte luzatzea. Dagozkion jatorrizko fakturarekin edo kopia konpultsatuekin egiaztatu beharko da (2019koak izan beharko dira, eta beranduenez ere 2019ko abenduaren 31 baino lehenagokoak), eta emandako dirulaguntzaren zenbateko osoa eta horren ordainketaren egiaztatzea ere aurkeztu beharko dira (2020ko martxoaren 31 baino lehenagokoak); baita 2019ko azaroaren 21eko Udalbatzaren erabakian adierazitako justifikazio-agiriak ere. Hala ere, horrek ez du eragozten diruz lagundutako proiektua 2020 ekitaldian osorik gauzatu izana justifikatzeko beharra.

4.- EH-Bilduk aurkeztutako mozioa, 2020ko urtarrilaren 30eko pentsio duinen aldeko greba orokorrari buruzkoa.- Jarraian, EH-BILDUK 2020ko urtarrilaren 9an (sarrera-erregistroko zenbakia: 80) Udalean aurkeztutako pentsio eta bizitza duinen aldeko urtarrilaren 30eko greba orokorrari buruzko mozioaren berri eman zaio Udalbatzari.

Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) adierazi du batzordean adierazi zuen bezala, ados dagoela EH-BILDUK aurkeztutako mozioarekin.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH-BILDU) adierazi du testuan adierazten den bezala, bat egiten dutela Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak eta pentsiodunen mugimenduak adostutako Taula Aldarrikatzailearekin. Gehitu du orain dela sei urte sindikatuek eta gizarte-eragileek biztanleen giza eskubideei buruzko gutun bat egin zutela eta orain dela bi urtetik Hego Euskal Herriko pentsiodunen mugimendua astero mobilizatzen ari dela pentsio duinen alde, eta mugimendu horiek ardatz nagusi berdinak dituztenez, haiek egindako Taula Aldarrikatzailearekin bat egiteko mozio hori aurkeztu dutela. Adierazi du Madrilgo Gobernuari eskatzen diotela 2011n eta 2013an onartutako pentsioen murrizketak indargabetez, lan erreforma indargabetez eta Gizarte Segurantzari eta Klase Pasiboei buruzko eskumenak transferitzeko; Gasteizko eta Nafarroako Gobernuei eskatzen diete 1.080,00 euroko gutxieneko pentsioa ezartzeko neurriak jartzeko; 1.200,00 euroko gutxieneko soldata ezartzeko neurriak jartzeko; lurraldeetako hitzarmenak estatuko hitzarmenen gainetik aplikatzeko, etab; eta gobernu autonomoei eta lurralde-gobernuei eskatzen diete soldata- eta pentsio-arrakala ezabatzeko, eta enplegu egonkorrak eta lanaldi murrizketak ezartzeko, adierazitako beste neurri batzuen artean. Gaineratu du mugimendu feministak ere lagunduko duela martxa horretan, eta zaintza guneak egongo direla mobilizazioetan parte hartu nahi duten pertsonen seme-alabak zaintzeko.

Soziosanitarioa, Berdintasuna, Immigrazioa eta adineko Pertsonak Informazio Batzordeak urtarrilaren 14an erabaki zuen EH-BILDUK 2020ko urtarrilaren 9an (sarrera-erregistroko zenbakia: 80) Udalean aurkeztutako lan-pentsio eta bizitza duinen aldeko urtarrilaren 30eko greba orokorrari buruzko mozioa onartzearen aldeko txostena egitea.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) adierazi du bere taldeak mozio horren aurka eta beraiek aurkeztutakoaren alde bozkatu duela, greba deialdi horretan dena nahasten dutelako: pentsioak, gutxieneko soldata, murrizketak, etab. Estatuko gobernuaren eskumena da guztia, eta hala ere Euskadin grebara deitzen da, eskumenak estatukoak direla jakinda ere. Gehitu du EAJ-PNVk, Estatuko aurrekontuak negoziatuz eta grebarik egin gabe, lorpen asko izan dituela: 2018 eta 2019an pentsioen KPIa igotzea, gutxieneko eta kotizazio gabeko pentsioak igotzea, aldaketa oso onuragarriak alarguntza pentsioaren oinarri arautzailean (izan ere, azken hori % 52 izatetik % 56 izatera igaro zen 2018an eta % 60 izatera iritsi da 2019an). Horrez gain, pentsioak murriztea saihestu zen, "iraunkortasun faktorea" 2023ra arte atzeratuz. Gehitu du eskumena duten erakundeetan lan egiten dutela pentsioen sistema publikoa



babesteko, pertsona guztiei bizi-baldintza duinak bermatuko dizkieten pentsio duin, justu eta nahikodun sistema bat bermatzeko, Toledoko Ituna bultzatzeko, pentsioen erosahalmena eta iraunkortasuna ziurtatzeko, gutxienez, pentsioen KPIaren arabeko eguneratzea errespetatuz eta Euskal Autonomia Erkidegoari Gizarte Segurantzaren araubide ekonomikoaren kudeaketaren arloko eskumenak transferitzea lortzeko. Horregatik guztiagatik, EH-BILDUK aurkeztutako mozioaren aurka eta haiek aurkeztutakoaren alde agertu dira.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da eta EAJ-PNVko ordezkarien aurkako botoarekin eta EH-BILDUKo eta AIARA BATUZeko ordezkarien aldeko botoarekin erabaki du EH-BILDUK 2020ko urtarrilaren 9an (sarrera-erregistroko zenbakia: 80) Udalean aurkeztutako lan-pentsio eta bizitza duinen aldeko urtarrilaren 30eko greba orokorrari buruzko mozioa atzera botatzea.

5.-EAJ-PNVk pentsiodunen mugimenduaren mozioaren aurrean aurkeztutako zuzenketa.- Jarraian, Batzordeari EAJ-PNVk 2020ko urtarrilaren 9an (sarrera-erregistroko zenbakia: 86) pentsiodunen mugimenduaren mozioaren aurrean Udalean aurkeztutako zuzenketaren berri eman zaio.

Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (EH-BILDU) adierazi du EH-BILDUREn mozioa EAJ-PNVrena baino zabalagoa eta laburragoa dela.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH-BILDU) galdetu du ea zer hartzen duten pentsio duintzat; adierazi du EAJ-PNVren mozioa ez dela guztiz zehatza, iraunkortasunaz eta abar hitz egiten dela eta pertsona arruntek erabiltzen duten hizkuntzatik urruntzen dela. Adierazi du ez duela ulertzen Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeak (BGAE) aipatzea, pentsioen sistema publikoa defendatu nahi denean. Gehitu du beren mozioan lan erreforma indargabetzeaz, gutxieneko soldata igotzeaz eta soldata-arrakala ezabatzeaz hitz egiten dutela, eta EAJ-PNVk ez duela horretaz hitz egiten.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) adierazi du Udalbatzak jorrazteko eskumen asko dituela, eta egia esateko, gaur egun, gai horien gaineko eskumena estatu-mailakoa dela, nahiz eta lan egin behar den hori alda dadin, hargatik eragotzi gabe adierazitako aldarrikapen guztiekin ados egotea (gutxieneko pentsioa, gutxieneko soldata, etab.).

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH-BILDU) esan du Euskal Autonomia Erkidegoko pobrezia % 10 igo dela adierazten duen txostena argitaratu dela duela gutxi. Horrez gain, adierazi du beharrezkoa dela gutxiengo bati mesede egiten ez dioten proiektuak zehaztea eta horien alde egitea.

Esku-hartze gehiagorik ez dagoenez, EAJ-PNVko ordezkarien aldeko botoarekin eta EH-BILDUKo eta AIARA BATUZ taldeko ordezkarien aurkako botoarekin, erabaki da 2020ko urtarrilaren 9an (sarrera-erregistroko zenbakia: 86) EAJ-PNVk Udalean aurkeztutako pentsiodunen mugimenduaren mozioari buruzko zuzenketa onartzea.

6.- Alkatetza dekretuen berri ematea.- Ondoren, Udalbatzari 2019/612tik 2020/21era (biak barne) bitarteko alkatetza dekretuen berri eman zaio. Hona hemen dekretuen helburua, laburbilduta:

ALKATETZA DEKRETUA - 2019/612.- Orixe Comercial SL - Zuhatzako HUAko obretarako emandako abala itzultzea.



ALKATETZA DEKRETUA - 2019/613.- Murgako 4. industrialdeko 242. lursailaren hirigintza egoeraren 2019ko abenduaren 18ko txosten teknikoa onartzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2019/614.- Zorroza Gestión SL - 1. hertsapen-isuna ezartzea eta teknikariaren bisita jakinaraztea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2019/615.- MA.C.A. - Dokumentazio gehigarria eskatzea, Erretes Lantenoko etxebizitza bat lehen aldiz okupatzeko lizentzia emateko.

ALKATETZA DEKRETUA - 2019/616.- AF.C.CH.- Obrarako udal lizentzia ematea, Luiaondoko Barrena kaleko 2-3. C etxebizitzako leihoak aldatzeko.

ALKATETZA DEKRETUA - 2019/617.- Obrarako udal lizentzia ematea, udal-hilerrian hobekuntza-lanak egiteko.

ALKATETZA DEKRETUA - 2019/618.- A.H.C. - Etxegoien etxebizitza bat lehen aldiz okupatzeko lizentzia emateko dokumentazio osagarria eskatzea eta obra-hondakinak kudeatzeagatiko fidantza itzultzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2019/619.- Luxoko Administrazio Batzarra.- Obrarako udal lizentzia ematea, Erbi eta Luxo arteko (Luxo tartea) landa-bidea egokitzeke.

ALKATETZA DEKRETUA - 2019/620.- Arespalditzako 2. industrialdeko 54. lursaileko etxebizitzan segurtasuna bermatzeko obra txikiak egiteko agindua.

ALKATETZA DEKRETUA - 2019/621.- Etxaurren Ikastola. Bi urteko gelako talde psikopedagogikoaren eta gelako laguntzailearen aparteko ordainsariaren nominen ordainketa, 2019ko abendua.

ALKATETZA DEKRETUA - 2019/622.- Alada Fundazioa.- EALE kudeatzeagatiko ekarpen ekonomikoa, 2019ko azaroa.

ALKATETZA DEKRETUA - 2019/623.- Abenduko langileen eta alkatearen nominen hileko txostena onestea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2019/624.- Aiarako Eskualdea. - Hondakinak kudeatzeagatiko ekarpen ekonomikoa, 2019ko 4. hiruhilekoa.

ALKATETZA DEKRETUA - 2019/625.- Aiarako Eskualdea - 2019/2020 Eskualdeko Enplegu Planarekiko (EEP) ekarpen ekonomikoa.

ALKATETZA DEKRETUA - 2019/626.- Asfaltados y Construcciones Morga SL - Luiaondoko Barrena kaleko mugikortasuna hobetzeko obra egiteko hirugarren luzapena ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2019/627.- J.A.B.C. 2019/2020 aldirako Eskualdeko Enplegu Planeko (EEP) deialdirako aldi baterako kontratua.

ALKATETZA DEKRETUA - 2019/628.- AIARAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA ETA ANTZINAKO ERMANDADEA.- Ehiza-barrutiko 2019ko lurren aprobetxamenduagatiko dirulaguntza zuzena.

ALKATETZA DEKRETUA - 2019/629.- Talde politikoentzako ekarpen ekonomikoa, 2019ko abendua.

ALKATETZA DEKRETUA - 2019/630.- Udalkideentzako ekarpen ekonomikoa, 2019ko abendua.

ALKATETZA DEKRETUA - 2019/631.- R.M.D. 2019ko ordaindutako TMIZren zati bat itzultzea, ibilgailuari behin betiko baja emateagatik.



ALKATETZA DEKRETUA - 2019/632.- Aiaraldeko Euskalgintza Kontseilua Elkartea. 2019ko dirulaguntzaren ordainketa.

ALKATETZA DEKRETUA - 2019/633.- AIARAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA.- 2019ko obrak egiteko gastuetarako dirulaguntza ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2019/634.- AIARAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA.- 2019ko teknikarien ordainsarien gastuetarako dirulaguntzak ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2019/635.- Arespalditzako osasun-etxerako irisgarritasuna hobetzeko obrari dagokion Balgorza SA enpresaren faktura onartzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2019/636.- Arespalditzako osasun-etxerako irisgarritasuna hobetzeko obrari dagokion Balgorza SA enpresaren 1. egiaztagiria onartzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2019/637.- Udal-igerilekuen eremu estalian egingo den obraren zuzendaritza Sara Martinez andreari esleitzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/1.- M.D.S.- Armen Txartelean sartzea 4. kategoriako arma.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/2.- Y.G.O.- Maroñoko txabolaren estalkia birgaitzeko obra-hondakinak kudeatzeko fidantza eskatzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/3.- Amurrioko Jabetzaren Erregistroa.- Aiarako 5. industrialdeko 183. katastro-lursailari buruzko hirigintza txostena onartzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/4.- Amurrioko Jabetzaren Erregistroa.- Aiarako 5. industrialdeko 618. lursailari buruzko hirigintza txostena onartzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/5.- Amurrioko Jabetzaren Erregistroa.- Aiarako 5. industrialdeko 1755. katastro-lursailari buruzko hirigintza txostena onartzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/6.- M.I.C.F.- Obrarako udal lizentzia ematea, Arespalditzako etxebizitza batean leihoak aldatzeko.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/7.- G.O.T.- Obrarako udal lizentzia emateko eskaera berria aurkezteko beharra adierazi da, Etxegoien etxebizitza bat eraikitzeko.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/8.- MA.I.G.- Obrarako udal lizentzia ematea, Lantenoko Zalduerte auzoko 33. zenbakiko etxebizitzan bainugela berritzeko.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/9.- Zuhatzako Administrazio Batzarra.- Dokumentazio gehigarria eskatu da, obrarako udal lizentzia emateko Gizarte Zentroko sukaldea handitzeko.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/10.- JA.G.U.- Beotegiko lursaila banatzeko udal lizentzia emateko dokumentazioaren eskaera.

ALKATETZA DEKRETUA- 2020/11. Zuhatzako Administrazio Batzarra.- Zuhatzako Plan Partzialaren espedientearekiko sarbidea.

ALKATETZA DEKRETUA.- 2020/12.- H.M.G.- Aparkatzeko txartela ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/13.- JA.B.C.- 2019ko abenduko nomina eta aparteko ordainsaria ordaintzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/14.- TG. Gizarte Segurantza. 2019ko azaroko kuota ordaintzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/15.- Erregistratutako fakturen kontabilitate-zerrenda onestea (F/2019/19).



ALKATETZA DEKRETUA - 2020/16.- Lantenoko Administrazio Batzarra.- Lantenoko Txabarri auzorako sarbiderako bidea konpontzeko obrarako udal lizentzia ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/17.- Etxaurren Ikastola. 2019ko abenduko nominak ordaintzea, talde psikopedagogikoari eta bi urtekoen gelako laguntzaileari.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/19.- 2019ko jardueraren Aurrekontuaren luzapena.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/20.- Zuhatzako Administrazio Batzarra.- Dokumentazio gehigarria eskatu da Zuhatzako euri-uren saneamendurako sare berriaren obrarako udal lizentzia emateko.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/21.- Izoriako Administrazio Batzarra.- Dokumentazio gehigarria eskatu du, Izoriako lursail batean horma bat eraikitzeko obrarako udal lizentzia emateko.

Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) hartu du hitza eta 2019/628 Dekretuari buruz galdetu du. Dekretu horren bidez, Administrazio Batzarren eta Gorobel mendilerroaren artean banatzen da ehiza-barrutiaren aprobetxamenduagatiko kanonaren zenbatekoa. Azkeneko osoko bilkuran adierazi zen zegokion ordainketa egiaztatuko zela.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du esleipenean adierazten dela urteko ordainketa bat dela. Gainera, egiaztatu da aurreko kontratua sinatu zeneko momentuan (abuztuan) likidatu egin zela. Horrez gain, urteko ordainketa bakarra egin zela, zeinaren zenbateko osoa 17.350,00 euro zen.

7.- Gai-zerrendatik kanpoko gaia.- Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) Udaltzari jakinarazi dio EH-Bildu udal-taldeak atzo aurkeztu zuela mozioa. Azken hori ustelkeriaren aurkako beharrezko tresna instituzional independenteak sortzeari eta martxan jartzeari buruzkoa zen. Azaldu du bere ustez ez dagoela inolako premiarik, ez delako, beste kasu batzuetan bezala, egun zehatz baterako adierazpena. Horregatik proposatu du otsaileko batzarreko gai-zerrendan sartzea.

José Antonio Gorbea Alonso zinegotzi jaunak (EH-BILDU) barkamena eskatu du mozioa hain berandu aurkeztu izanagatik, eta horren laburpen bat egin du. Laburbilduz, mozioak eskatzen dio Eusko Legebiltzarrari “Jardunbide Egokien eta Ustelkeriaren Aurkako Bulegoa sortzeko Lege proposamena” izapidetzea azkartzeko legegintzaldi hau amaitu aurretik; eskatzen dute Euskal Autonomia Erkidegoko Ustelkeriaren aurkako Fiskaltza sortzeko, beharrezko pertsona eta materialekin. Halaber, Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio ustelkeriaren aurkako espezializatutako unitate bat sortzeko Ertzaintzan, 2019ko otsailean onartu zuen moduan. Adierazi du ez duela uste mozioa ikaragarri luzea denik ezta eztabaida asko sortuko dituenik ere. Hala ere, ulertzen du ez dela premiazko gaia, baina espero dute legegintzaldia amaitu baino lehen gauzatzea.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) adierazi du mozio hau atzo udaletxean aurkeztu zela azken unean, eta proposatzen dela otsaileko batzordeko eguneko gai-zerrendan sartzea, gainerako taldeek edukia azter dezaten.

Udalbatza jakinaren ganean geratu da eta aho batez erabaki du, ohiko bozketan, puntu hori otsaileko Batzordean sartzea.



8.- Eskaerak eta galderak.-

Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) honako hau adierazi du:

- Lehen sektoreko Batzordeko presidenteari eskatu dio otsailean Batzordea deitzeko; izan ere, berandu dabilta larreen aprobetxamenduaren ordenantzarekin, eta ahalik eta azkarren egin behar dute aurrera.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) adierazi du joan den astean bilera egin zuela, eta Abereri azpimarratu diote Ermandadearen bileran hitz egindakoa aurkezteko, Osasun Planari dagokionez. Gaineratu du basogintzarako laguntza deialdia ere atera dela; beraz, otsailean Batzordea deituko da.

Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) adierazi du, batez ere, premiazkoa dela Ordenantza berria egitearen gaian aurrera egitea, hori argitaratu behar delako, etab.

Alkate jaunak adierazi du aholkularitza teknikoak zirriborro bat aurkeztuko zuela, eta abeltzainen elkartearekin ere hitz egin zela, ordenantzak eragingo baitie.

José Antonio Gorbea Alonso zinegotzi jaunak (EH-BILDU) honako hau adierazi du:

- Galdetu du araudia aldatuko den, abereak jada Gorobelera bidaliko direlako.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) adierazi du datorren urtean sartuko dela indarrean, Osasun Planarekin batera.

José Antonio Gorbea Alonso zinegotzi jaunak (EH-BILDU) adierazi du azaroan edo abenduan ordenantza ekarriko zela, eta zentzuzkoagoa dela 2021ean indarrean sartzea.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH-BILDU) honako hau adierazi du:

- Esan du aurreko osoko bilkuran galdetu zutela Udalean hileta zibila egin ahal izateko araudirik ote zegoen, eta oraindik ez dakiela ezer.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du idatziz erantzun daitekeela, baina datorren Batzordean landuko dela gai hori, baita irekitako Informazio Batzordeen kontua ere.

- Zuntz optikoaren gaiari dagokionez, azpimarratu du Eusko Jaurlaritzako edo Foru Aldundiko teknikari bat etortzea nahi dutela, Aiarako biztanleei prozesu osoaren berri emateko eta bukaera noizko aurreikusten den jakinarazteko.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du Eusko Jaurlaritzari informazioa eskatu zaiola eta informazioa eskuragarri dagoenean bilera bat egingo dela. Adierazi du hiru ardatz daudela gai honetan: Aldundiaren programa, Eusko Jaurlaritzarena eta Estatuarena. Gaineratu du instalazio-prozesuaren egoeraren koadro txiki bat egingo dela, eta informazio hori dutenean, Administrazio Batzarren bitartez jakinaraziko dela. Adierazi du bere asmoa egoera eta konpromisoak ezagutzea dela, baita hedapena noraino egiten den ikustea ere. Gehitu du enpresarekin harremanetan jarri direla. Enpresa horrek Aiaran gauzatu du zabaltzea eta adierazi du Menagarai-Beotegi ez



zegoela estatuko planaren barruan. Zabaltzea jada eginda dago eta Zuhatzan azkeneko ermitaraino egin da. Beheko aldea Okendotik egingo da.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH-BILDU) azpimarratu du kudeatzaileak Kontzejuaren bilera batera joateko eskatu nahi dutela; izan ere, hori da guztiei jakinarazteko modua.

- Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH-BILDU) galdetu du Garabillan laginketa berririk egin ote den, eta hala bada, zein izan da emaitza.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) esan du nahi izanez gero, informazio-eskaera aurkez dezaketela, baina hurrengo Batzordean gaia jorratuko dutela.

José Antonio Gorbea Alonso zinegotzi jaunak (EH-BILDU) honako hau adierazi du:

- Adierazi du Ertzaintzak esku hartu duela, Zorrotzako gaiari dagokionez.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) esan du hori Batzordean esan zela, egun hartan arkitektoa enpresara joango zelako, Ingurumeneko teknikariak lagunduta. Gaineratu du azken hilabeteetan espedientearen izapidearekin jarraitu duela, eta beharrezkoa zela nabean sartzea, barruan zer dagoen ikusteko; eta enpresak oztopoak jarri zizkigunez, Ertzaintzaren laguntza eskatu zen, Ingurumen unitate bat ere baduena. Gehitu du patruila laguntza teknikoa izateaz gain, horrek atestatu bat egingo lukeela enpresak sartzea ekidingo balu. Amaitzeko, adierazi du sartzen utzi zutela, eta txosten teknikoa egiten ari dela, baita Ingurumen teknikariaren txostena ere.

José Antonio Gorbea Alonso zinegotzi jaunak (EH-BILDU) adierazi du Udalaren funtzionamenduari buruzko zalantza batzuk dituela; enpresak hondakinen kudeatzaile gisa jarraitzen duelako eta lizentzia administrazio-isiltasun bidez lortu zuelako. Hori dela eta, uste du Eusko Jaurlaritzari jakinarazpen bat bidali beharko litzaiokeela, eta enpresak hondakinen kudeatzaile gisa jarduten duenean jakin dezaten arau-hauste egoeran dagoela.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du Udalak espedientearen hasiera komunikatu diola, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Zerbitzuari ez ezik, Osalani ere, oso kezkatuta daudelako bertan lan egiten duten langileen osasunarekin. Gainera, Osalaneko arduradunekin ere bilera bat egin zen.

José Antonio Gorbea Alonso zinegotzi jaunak (EH-BILDU) adierazi du pozik dagoela langileengatik kezkatuta daudelako, inguruko eraikinetako langileak ere kezkatuta daudelako.

- José Antonio Gorbea Alonso zinegotzi jaunak (EH-BILDU) adierazi du Arespalditzako kontsultategi medikoko obra amaitu dela ikusi duela. Hala ere, galdetu du nola dagoen udal-igerilekuetako estalitako eremuaren instalazioaren obra; azken hori 2018-2019 Foru Planean sartuta zegoen eta 2019ko abenduaren 31ra arteko epea zuen. Hala ere, 2019/637 Dekretuaren arabera, obraren zuzendaritza-kontratua esleitu berri da. Galdetu du kudeaketa horiek obra amaitu baino lehen edo ondoren egiten diren.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) proiektuaren kudeaketa lanak hasi aurretik ematen dela erantzun du. Adierazi du Foru Planaren proiektua aurkezteko hiru



aurrekontu eskatu zirela, eta lehenengo fase batean proiektuaren idazketa esleitu zela; bigarren fase batean obraren zuzendaritza esleitu zen (azken hori PROVISER enpresari esleitu ondoren). Amaitzeko, adierazi du asteartean igerilekuetan obraren zuinetaren akta egingo dela, eta horrekin batera hasi egingo da.

- José Antonio Gorbea Alonso zinegotzi jaunak (EH-BILDU) adierazi du, Luaiondoko Barrena kaleari dagokionez, hasieran lau hilabetekoa zen egikaritze-eparearen hirugarren luzapena izapidetu dela, eta galdetu du hori enpresaren aurreikuspen-faltagatik izan den.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du luzapen guztiek obra-zuzendariaren txostena dutela. Adierazi duenez, badirudi atzeko eremua oso iluna dela eta ura zuela; obra-zuzendaritzarekin izan zuen azken komunikazioan esan zigun karga-plaka berriak egin behar zirela besteak ez zirelako egokiak, eta gaur beste bat egingo zela. Bukatzeko, azpimarratu du errealitate meteorologikoa dagoena dela, baina luzapen guztiek obra-zuzendaritzaren txostena badutela.

- José Antonio Gorbea Alonso zinegotzi jaunak (EH-BILDU) adierazi du, ehiza-barrutiaren aprobetxamenduagatik kanonaren Administrazio Batzarrekiko likidazioari dagokionez, eman den azalpena entzun duen arren, berak oraindik ulertzen duela, alokairu-kontratu batean bezala, aurreko kontratuari dagokion zenbatekoa hainbanatu behar dela.
- José Antonio Gorbea Alonso zinegotzi jaunak (EH-BILDU), nekazaritzako plastikoak biltzeko kontratua esleitzeko gaiaren inguruan, adierazi du alde batetik ez duela ulertzen azaroan bi mila euro besterik geratu ez izana, bilketa ekainetik egin ez denean, eta urteko zenbatekoa 15.000 euro zenean. Bestalde, adierazi du urrian edo azaroan plegu teknikoaren zirriborro bat eman zitzaiola; uste du orain biztanleria gaika biltzeko hezita dagoela, eta hori esleipena egiterako orduan gehiago baloratu beharko litzatekeela. Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du banatzea ez dela baloratzeko zerbait, baldintza bat baizik.

José Antonio Gorbea Alonso zinegotzi jaunari (EH-BILDU) eman zaio kontratu honen lizitazioaren pleguen kopia bat. Horren deialdia jada egin da.

- José Antonio Gorbea Alonso zinegotzi jaunak (EH-BILDU) galdetu du Arespalditza eta Luaiondoko sarreretan eta irteeretan zergatik agertzen den auzoa eta ez herria. Adierazi du herria ez dela Aiara, Aiaran 24 herri daudela, eta berak aldarrikatzen dituela.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du ez dakiela zergatik gertatu den hori, plataformaren gairen bat izango da, baina aztertuko du.

- José Antonio Gorbea Alonso zinegotzi jaunak (EH-BILDU) galdetu du ea zer erabaki duen Udalak garraiorik gabe geratu diren herrien inguruan, eta Aldundiarekin hitz egin den.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du egindako bilera bakarra izan dela Garraio diputatua etorri zenekoa; gaineratu du osoko bilkuran garraioaren balorazioa egingo zela, behin hori hasita. Norbaitek zerbitzua emateko eskaintza egiteari dagokionez, adierazi du badirudiela bi pertsona informatu zirela, nahiz eta Udalak ez duen horren inguruko jakinarazpenik izan.



- José Antonio Gorbea Alonso zinegotzi jaunak (EH-BILDU) galdetu du zer gertatu den webgunean; izan ere, adibidez baserrien lokalizatzailearen aplikazioak ez du funtzionatzen.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du eraso informatiko bat egon dela webgunean eta erori egoian dela, baina banner guztiak berreskuratzen ari direla jada.

- José Antonio Gorbea Alonso zinegotzi jaunak (EH-BILDU) adierazi du argitaratu beharreko Udalbatzaren akta asko daudela, azkenak martxokoak edo apirilekoak direla.

Gaineratu du, digitalak izango zirela esan zela, baina berdin jarraitzen dugula.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du enpresaren aurrekontuaren zain gaudela.

- José Antonio Gorbea Alonso zinegotzi jaunak (EH-BILDU) adierazi du aurrekontuen luzapena onartu dela ikusi duela eta aurrekonturako pare bat proposamen egin nahi dituela.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) adierazi du 2020ko aurrekonturako edozein proposamen udal-taldeei aurrekontuari zuzenketak aurkezteko emandako epean egin behar delako. Proposamena egitean, proposatutako gastua eta horren finantzaketa adierazi behar dira. Horrez gain, alkate jaunak gehitu du aurrekontuaren proiektua batzorde batean aurkeztuko dela eta horri zuzenketak aurkezteko epea irekiko dela. Zuzenketa horiek inprimaki arrunt batean aurkeztu behar dira. Amaitzeko, adierazi du udal-taldeek Aurrekontuaren Proiektuari egindako ekarpenak ikusita, aipatutako eginikoak, eta egokia bada, aurkeztutako proiektuan aldaketak egin ahal izango direla.

José Antonio Gorbea Alonso zinegotzi jaunak (EH-BILDU) adierazi du udal-ondarea defendatu behar dela, eta esan denez Murgako industrialdea OHZ dela-eta sarrera gehien lortzen den lekua denez, zerbait egin behar delako litzatekeela eremua sustatzeko. Adierazi du Amurrioko industrialdean ekintzak egin direla Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin, baita Laudion ere, nahiz eta hemen esan ez zela laguntzarik ematen industrialdeetarako.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du esandakoa izan zela ez dagoela jarduera integral bat egiteko laguntzarik, hori dela Murga industrialdeak eskatzen duena; izan ere, dirulaguntza jaso dezaketen erreforma txikiak egiteak ez du inolako zentzurik.

- José Antonio Gorbea Alonso zinegotzi jaunak (EH-BILDU) adierazi du lotsagarria dela futbol-zelaiko pista nola dagoen; adierazi du egokitu behar dela eta Udalaren onurarako jarduerak daudenean, laguntza eman behar dela.

Montse Angulo Sollo zinegotzi andreak (EAJ-PNV) adierazi du antolatzaileei galdetu diela laguntzen zaien ala ez.

José Antonio Gorbea Alonso zinegotzi jaunak (EH-BILDU) adierazi du pistak okerrera egin duela Udalak zenbait lan egitean.



Aiarako Udala

Ayuntamiento de Ayala

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) adierazi du ados dagoela instalazioak konpontzeko beharrarekin, baina adierazi nahi du pista hondatu zela azpian zepak zeudelako. Eta, noski, ados dago, udalerria sustatu behar da, eta hori da egiten dutena. Adierazi du hobekuntzak egiten direla eta ikastola ziklokrosak eman zuen irudia ez zela txarra izan, Udala ahalik eta gehien inplikatu delako, baina ez dugu ahaztu behar baliabide ekonomikoek mugak dituztela.

Eta jorrazeko beste gairik ez dagoenez, alkateak bilera amaitutzat eman du zortziak eta hogeirenean. Eta landutakoa jasota gera dadin, akta hau eman da, Arespalditzan, bi mila eta hogeiko urtarilaren hogeita hiru. Nik, idazkaria naizen honek, guztiaren fede eman dut.

O.E.
ALKATE-UDALBURUA

IDAZKARIA

Izpta.: Gentza Alamillo Udaeta.

Izpta.: M^a Del Carmen Rojo Pitillas.